




HEZITZAILEENTZAKO GIDA PRAKTIKOA

GOZATU EUSKARA!

# AISIALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN

LUDOTEKAK | JOLAS TXOKOAK



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)



# Aurkibidea

## **Aurkezpena** **5**

Sarrera .....5

Zergatik euskara?.....6

## **Oinarriak. Nola erabili gida hau?** **11**

### **1. Euskararen erabileraren inguruko hainbat aholku** **13**

### **2. Ludoteken ezaugarriak eta aukerak** **17**

### **3. Erabilgarriak diren 4 estrategia nagusi** **19**

3.1 Hezitzaile berritsuak .....19

3.2 Hezitzailea erdigunean .....22

3.3 Egoera babestuak sortu .....24

3.4 Girotzea eta sentsibilizazioa .....25

### **4. Jardueraren egoera nagusienekin lotutako adibideak eta proposamenak** **27**

4.1 Mahai jolasak .....27

4.2 Tailerrak .....29

4.3 Jolas sinbolikoa .....31

4.4 Jolas librea eta egoera informalak .....34

## **Hizkuntza-aniztasunari begirako proposamenak** **37**

## **Gurasoek parte hartzen duten egoerei begirako irizpideak eta ideiak** **39**





# Aurkezpena

## Sarrera

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, 2014an hasita, hainbat gida argitaratu dituzte aisialdian eta kirolean euskara sustatu nahi duten eragileei zuzenduak. Gidetan euskararen erabileran eragiteko kontuan hartu beharreko zenbait irizpide interesgarri proposatu zaizkie arlo horietan ari diren hezitzaile eta entrenatzaileei.

Eskola funtsezkoa izan da Araban iritsi garen lekura iristeko. Datozen urteetan komeni zaigu eremu ez-formalean eragitea, urrats berriak eman nahi baditugu. Izan ere, 4-8 edota 9-12 urte bitarteko haurren sozializazioa, familietan eta eskoletan ez ezik, eremu ez-formalean ere gertatzen baita: aisialdian, udalekuetan, eskolaz kanpoko jardueretan, kirol-jardueretan, ludoteketan... Haur eta gaztetxoek aukera izan behar dute beren adinkideekin harreman berriak euskaraz sortzeko eta bizipen atseginak euskaraz jasotzeko. Hezitzaileak garen neurrian, guri dagokigu hori ahalbidetzea.

Gidetan marko teoriko berdina landu dugu kasu guztietan:

- (a) Euskararen erabileran eragin nahi badugu, hezitzaileak eusle izan behar du; hau da, ulertzen dioten neurrian, elkarrizketetan euskarari eutsi behar dio, solaskideak gaztelaniaz erantzuten badio ere.
- (b) Hezitzaileak partaideen arteko solasaldietan eragin dezake, elkarriketa horietan parte hartuz, solasaldian euskarak presentzia gal-tzen duenean.
- (c) Hainbat jolas, dinamika eta jardueratan adibidez, hizkuntzak eta komunikazioak pisu berezia dute; horien bidez, erabilera sustatu ahal dugu.

Oraingoan **“Ludoteketan euskararen erabilera sustatzen”** izeneko gida aurkezten dugu. Gida honek badu berezitasun bat: era partizipatiboan sortu dugu. Izan ere, Gasteizko eta Arabako ludoteketako hainbat hezitzaile bildu, eta haiekin batera landu dugu marko teorikoa ludotekaren eguneroko dinamikara nola ekarri. Adimen kolektiboa aktibatu nahi izan dugu, eta oso esperientzia aberasgarria izan da. Prozesua Geu elkarteak eta eBete hizkuntza zerbitzuak gidatu eta dinamizatu dute.

Gida hau horien guztien lanari eta ekarpenari esker sortu dugu.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzetik.

## Zergatik euskara?

Azken urteotan, euskararen erabilera sustatzearen inguruko paradigmen aldaketa ematen ari da: urteetan eskola eta familia transmisioa izan da ardatz nagusi eta ia bakarra, eta horretan oinarritu gara aisialdiko jarduera gehienak programatzerakoan. Egun, euskararen sozializazioan dago jomuga eta hori da, zalantzarik gabe, euskarazko aisialdiarentzat erronka berri bikaina.

Soziolinguistikan aditua den Paula Kasaresen esanetan "*Transmisioaren hitzaren atzean irudi lineal bertikala dago, noranzko bakarrekoa, beti goitik beherakoa: batek transmititu eta bertze norbaitek jasotzen du (helduek haurrei egiten diete, gurasoek seme-alabei, irakasleek ikasleei). Halere, ikertzen hasita, berehala ohartzen zara haurra hiztun bilakatzeko prozesua ez dela familiara mugatzen, ez eta eskolara ere. Prozesu osoagoa da eta goitik beherako hizkuntza eraginei esker ez ezik ezker-eskuin ere, haur adinkideen arteko harreman horizontaletan ere gertatzen dela. Izan ere, hiztun bilakatea hizkuntzaz jabetzea baino gehiago, hizkuntzaren bidez gizartean jokatzeko gaitasuna eskuratzea da".*





Hortaz argi dago haur eta gaztetxoen euskararen sozializazio prozesuan aisialdi esparrua oso garrantzitsua dela, eta esparru horretan eragitea funtsezkoa dela. Alde batetik, euskara eta eskola binomioa ekiditeko, eta bestetik, euskararekiko motibazio eta bizipen positiboak bultzatzeko.

Euskararen erabilera sustatzea izan ohi da aisialdian lanean ari garen hezitzaileen kezka nagusienetarikoa bat. Helburu nagusien artean aurki dezakegu ia beti. Baina askotan, helburu horiek ez daude oso ondo zehaztuta, ez dakigu oso ondo nola egin behar dugun sustapen lan hori, edota ez dakigu ondo nola erabili eskura ditugun baliabideak.

Horregatik, ezer baino lehen, garrantzitsua da gure aisialdia ematen den esparrua edo testuingurua ondo ezagutzea eta batez ere ulertzea:

- » Ohiturak aldatzen ari diren arren, gehiengo baten etxeko hizkuntza gaztelania da oraindik ere.
- » Gure hiri, herri edota auzoetan euskararen erabilera handitu den arren, oraindik ere testuinguru gehienetan ez da oso handia lagun artean, familian, kirolean, zerbitzuetan...
- » Gaztelania hutsean dauden sareak dira gehien kontsumitzen direnak: telebista, musika, liburuak, sare-sozialak... eta horrenbestez, erreferente euskaldunen falta handia dute haur, gazte zein helduek.

- » Askok euskara hezkuntza formalerako erabiltzen den hizkuntza bezala identifikatzen dute: euskara = eskola, euskara = betebeharra... binomio negatiboak sortuz.
- » Gure ingurua geroz eta eleaniztunagoa da. Kultura aniztasuna kon-tuan izan behar dugu eta daukan garrantzia eman behar zaio.

Bada, ludoteka zerbitzuetan ere, euskara zutabe eta oinarri izan daiteke, transmisiorako eta kohesiorako tresna ezin hobea. Beraz, gure zeregina izango da ludoteken esparruan euskararekiko jarrera positibo eta aktiboa lantzea. **Arnasguneak** sortu ditzagun. Ez da prozesu azkarra izango. Baina emaitza txikienak ere, lorpen izugarriak izango dira!







## Zer dira ARNASGUNEAK?

Soziolinguistikan erabiltzen den kontzeptu bat da, Estatu Batuetan sortutakoa baina azken urteotan euskararen inguruan asko erabili dena.

Arnasguneak dira beste hizkuntzen presiorik gabe lasai sentitzeko guneak. Gune horiek herri oso bat izan daitezke, ikastola bat, auzo bat, lantoki bat, ekintza bat.... Arnasguneak ez dira ghettoak, ez dira isolatuta egon behar, baina hizkuntza gutxitu horretan normaltasunez hitz egiteko baldintzak eskaintzen dituzte eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da.

Esan daiteke euskarak arnasa hartzen duela arnasguneetan, eta arnasguneek arnasa ematen diotela euskarari bere osotasunean.



# Oinarriak

## Nola erabili gida hau?

Gida hau ludoteka edo jolas txoko desberdinetan aritzen diren zu bezalako hezitzaileei zuzenduta dago. Izan ere, horrelako esparruan lanean ari garenean —euskararen erabileraren ikuspegitik— irizpide, tresna edota gomendio batzuk baliabide moduan eskura izatea benetan lagungarri izan daitekeela uste dugu, bereziki haur eta gazteen euskararen sozializazioan eragiten laguntzeko; eta hor kokatu nahi dugu gida hau.

### 1 ATALA

Euskararen erabileraren **inguruko hainbat aholku** aurkituko dituzu. Orokorrak dira eta ludoteketan ez ezik, aisialdiko beste esparruetan baliagarriak izango zaizkizu. Gainera, atal honen amaieran 10 puntuz osatutako *Dekalogo*a-n oinarri teoriko garrantzitsuenen laburpena osatu dugu.

### 2 ATALA

Aisialdi esparruan **Ludoteka zerbitzuek** dituzten **ezaugarriak** azpimarratu nahi izan ditugu, izan ere, ez da gauza bera udaleku itxi batean hezitzaile gisa aritzea, jantoki batean lan egitea edota eskola orduz kanpoko jardueretako kirol entrenatzailea izatea. Esparru bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina hezitzaile garen heinean aisialdi esparru guztietan eragin dezakegu euskararen erabileran.

### 3 ATALA

Erabilgarriak izango zaizkizuen **4 estrategia** nagusien inguruan arituko gara:

- |                              |                                   |
|------------------------------|-----------------------------------|
| 3.1 HEZITZAILE BERRITSUA     | 3.2 HEZITZAILEA ERDIGUNEAN        |
| 3.3 EGOERA BABESTUAK SORTZEA | 3.4 GIROTZEA ETA SENTSIBILIZAZIOA |

Estrategia horiek nola eta zein egoeratan erabiltzea komeni den zehazten saiatu gara, eta garatzeko pistak eta adibide praktikoak gehitu ditugu, lagungarria izango delakoan.

### 4 ATALA

Jardueraren egoera nagusienera lotutako **adibide praktikoak eta proposamenak** aurkituko dituzu, beti ere, ludoteketan orokorrean egoten diren ekintza-espazioak kontuan hartuta: mahai jolasak, jolas sinbolikoa, jolas librea eta tailerrak. Azkenik, alde batetik, egungo errealitatea kontuan hartuta, hizkuntza aniztasunera begirako hainbat proposamen luzatzen dizkizugu eta bestetik, gurasoek parte hartzen duten egoerei begirako irizpideak eta ideiak aurkituko dituzue.



E!

E!




**1**

## Euskararen erabileraren inguruko hainbat aholku

Zer egiten ari garen, zer egin nahi dugun, non gauden eta nola bideratu nahi dugun erabakitzea eta horretaz kontziente izatea garrantzitsua da. Oso zaila da memento oro euskararen sustapenaren inguruan lanean aritzea, zoratuta amaituko genuke eta ez ginateke hain eraginkorrak izango.

Horregatik, garrantzitsua da, gidan aurkituko dituzun estrategia eta gomendioez gain, maiztasuna eta intentsitatea ere kontuan hartzea. Izan ere, euskararen inguruan, noiz, nola, norekin... egingo dugun aldeztatik erabaki daitezke... eta erabakitzea komeni da.

Bada, hartu orri eta paper zuri bat. Aukeratu zuretzat leku lasai eta goxo bat. Zuen lan esparruko inguruaren azterketa bat egitea proposatuko dizugu eta:



Honekin, GUTXIENEO HELBURUAK finkatzeko moduan egon gaitzke. SINPLEAK, LORTZEKO ERRAZAK, eta, batez ere, ERREALAK izatea garrantzitsua da. Helburuei lotuta tresnak eta jarduerak lotzea da hurrengo pausua eta gida honek prozesu horretan baliabide batzuk emango dizkizu.

## HASI BAINO LEHEN, 4 GOGOETA

### ERABILERA ARAUTUKO DUGU?

Oro har, ez da komeni erabilera arautzea, hau da, *Ludotekan euskaraz egin behar da bezalako esaldiak erabiltzea*, adibidez. Pentsatu dezagun tarte batez: araua betetzen ez bada, zein izango da ondorioa?, ondorio hori beteko dugu? Eta zailtasunak ikusiz gero, nola lagunduko diegu?...

Beraz, ludoteka espazio atsegina izatea nahi badugu eta bertan erabiltzaileek euskara asko eta gustura erabiltzea, erabilera arautzean, lagundu baino, behartu egingo ditugu eta gainera ardura beraien esku uzten egongo gara.

### AKATSAK ZUZENTZEA KOMENI DA?

Ez da beharrezkoa, eta gehienetan komenigarria ere ez. Behin eta berriz zuzentzen bagabiltza, komunikazioa oztopatuko dugu, eta ez dute segurtasunik sentituko. Gertatu daiteke komunikazioa deserosoa izatea, eta, horren ondorioz, ume zein guraso mutu bihurtzea: *zertarako saiatu gaizki egiten badut eta beti zuzentzen banaute? Nahiago dut ez hitz egin*. Aldiz, euskara asko -akatsekin bada ere- erabiltzen laguntzen diegu, errazagoa izango da hizkuntza hobetzea.

Gaizki erabiltzen dutenean, hezitzaile berritsu gisa aritzea komeni da, esaldiak modu zuzenean errepikatuz, galderak eginez edota erreferente izaten. Gainera, esaldiak zuzentzerako dinamikak, errutinak, kartelak...prestatu daitezke, esamolde edo hizkuntza errutinekin.



## HEZITZAILEOK BETI EGIN BEHAR DUGU EUSKARAZ?

Ez ahaztu hezitzaileok erreferente eta eredu garela hizkuntzaren arloan ere bai. Erdaraz egiten badugu, haur zein familien artean sinesgarritasuna galtzeko arriskua izan dezakegu. Horregatik, gure ardura eta konpromisoak betetzeko gai izan behar gara, eta beste hainbat zehar lerro zaindu behar ditugun moduan (hezkidetza, kulturartekotasuna...), hezitzaileok euskararen erabilera ere zaindu behar dugula argi izan behar dugu. Euskaraz ez dakiten edo oso gutxi dakiten haur zein familiei baliabideak eskainiko dizkiegu; eta, gainera, esperientzia positibo batetik komunikazioa errazten saiatuko gara.

## “NO ME GUSTA EL EUSKERA”

Pertsona bakoitzak izan dituen aurretiko bizipen eta esperientziak kontutan hartu behar ditugu. Ziurrenik *“No me gusta el euskera”* edo *“El euskera no sirve para nada”* bezalako esaldien atzetik esperientzia eskas eta negatiboak egongo dira; adibidez: ez dira ondo komunikatzen euskaraz, harreman eskasa dute, ez dira eroso sentitzen, ez dute erreferenterik, inguruan ez dute mezu/bizipen positiborik jaso... Bada, guk bizipen eta esperientzia eskas guzti horiek gainditzen laguntzea komeni da. Baina nola? Bizipen eta esperientzia positiboak eskainiz batez ere, euskararekiko duten harremana hobetu dezaten. Ez ahaztu, jarrera positiboa sustatzea prozesu baten parte da, eta, poliki eta maitasunez eginez gero, emaitza politak lortu daitezke.

## DEKALOGOA

1. Hurrek erosoen sentitzen diren hizkuntzan hitz egiteko joera izango dute. Hori ez da ez ona ez txarra.
2. Hezitzaileok eredu eta erreferente gara.
3. Hizkuntzetan erraztasuna izateko, erabiltzea ezinbestekoa da.
4. Euskara bizipen positiboekin lotzea garrantzitsua da.
5. Hezitzaileok euskararen erabilera sustatu nahi dugu. Ez da haurren ardura.
6. Euskara asko eta gustura erabiltzen laguntzea komeni da.
7. Programazioan, testuingurua eta tokian tokiko errealitatea kontuan izan.
8. Ekintza ez gidatuetan ere euskararen erabilera sustatu daiteke.
9. Ezinezkoa da une oro euskara sustatzen ibiltzea, jarduerak, guneak edota momentuak aukeratu eta batez ere modu kontziente batean egin.
10. Esku-hartze txikiekin emaitza handiak lor daitezke.



## Ludoteken ezaugarriak eta aukerak

Aisialdia hezkuntza araututik kanpo hezteko dagoen tresna ahaltsua da. Ondo pasatzeaz gain, hainbat balore (hezkidetza, kulturartekotasuna, bizikidetza arauak, errespetua, ekologia...) eta praktika egoki transmititu daitezke, eta aukera aparta da, bizipen positiboan bidez, ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Testuinguru honetan, hezitzaileok ezinbesteko ardura dugu, izan ere, gu geu gara jarduerak pentsatu, diseinatu eta bideratuko ditugunak (ez ahaztu: parte hartzea sustatzen!).

Alde batetik, ludoteken abiapuntua zein den jakitea garrantzitsua da:

- » Balio hezitzaileak: aisialdiko bestelako egitasmoetan bezala, ludoteketan balio hezitzaileak sustatu behar dira; ez dira ekintza hutsak. Kulturartekotasuna, hezkidetza, lankidetza, aniztasuna, enpatia... dira, besteak beste, landu daitezkeen baloreak. Hau da, ez da soilik umeek jolasten denbora pasatzeko esparru bat, jolasa baino gehiago da, gune hezitzailea da, arnasmunea.
- » Hezkuntza ez-formala: ludotekak hezkuntza ez arautuan kokatu behar ditugu, hau da, eskolatik kanpo egiten den jarduera gidatua. Horrek ez du esan nahi, lehen aipatu bezala, balio hezitzaileak ez dituenik.
- » Ludikoa: izaera ludikoa dute, hau da, parte hartzaileek ondo pasatzea dute helburu, eta horrela bizi dute haiek ere.

Bestalde, kontuan hartu behar da ludoteka zerbitzuek antolaketa modu desberdinak dituztela, baina orokorrean:

- » Parte hartzeko izena eman behar da normalean eta ordutegiak nahiko malguak izan daitezke.
- » Parte hartze mota ere anitza izaten da: batzuk haur edo gazteei zuzenduta daude bakarrik, beste batzuetan familiei irekita daude, eta beste zenbaitetan bien arteko nahasketa egoten da.
- » Jarduera askeak edo gidatuak egiteko aukera ematen dute.

» Normalean jarduera edo gune nagusiak hauek izaten dira:



### JOLAS SINBOLIKOA

Haurrek errealitateko egoerak simulatzen dituzte. Horretarako material desberdina erabili daiteke. Ludoteketan mozorroen txokoa, etxetxoa, denda... egoten dira, eta normalean ez da hain gidatua izaten.



### MAHAI JOLASAK

Betiko edo egungo jolasak dira. Mahai baten bueltan jolasten direnak: bingoa, partxisa, *Dooble*... Hasieran nola jolastu daitekeen erakustea garrantzitsua da, aurrera begira modu autonomoan erabil dezaten.



### JOLAS EZ GIDATUA

Jolas kooperatiboak, hizkuntza jolasak... egitea komeni da. Gidatuak edo ez gidatuak izan daitezke.



### TAILERRAK

Material desberdina erabiliz eta zailtasun desberdinarekin, eskulan asko egin daitezke. Gidatuak izaten dira.



Hortaz, ludoteka guztiak hezkuntza ez arautuan kokatuko ditugu; ludikoak izan arren, balore hezitzaileak dituzte; tokian tokiko ludotekak modu desberdinean kudeatzen dira; baina, oinarria partekatzen dute: jarduera/gune nagusiak antzekoak izaten dira.

Ludoteka zerbitzuak ez dira irla bat. Haur eta gazteen euskararen sozializazioa eta hezkuntza prozesuaren baitan kokatu behar ditugu: eskola, kirola, familiarekin batera...

## Erabilgarriak diren 4 estrategia nagusi

Estrategiak aukeratu eta erabiltzerako orduan HELBURUA zein den argi izan behar dugu.

**Euskara asko erabiltzen lagundu nahi diegu modu naturalean, euskaraz ondo pasatzea, eta gustuko bizipenak euskaraz ere izatea.**

### 3.1 Hezitzaile berritsuak

Hezitzaile berritsuak: estrategiarik oinarrizkoena eta beharrezkoena. Hezitzaileon jarrerari buruzkoa da. Nola lagunduko diegu euskara erabiltzen? Elkarriketa asko sortuz, elkarriketa askotan parte hartuz, eta horietan ari garenean irizpide eta baliabide batzuk erabiliz. Adi! Hezitzaile berritsua izatea ez baita asko hitz egitea.

#### Zer egiten dugu orduan hezitzaile berritsuok?

- » Ludoteketako **parte hartzaileei euskaraz egiten diegu beti.** Haur batzuk guri erdaraz eginda ere, guk euskaraz jarraitzen dugu:
  - **Hiztegi erraza** erabiltzen dugu, euskara gaitasun mugatua dutenek ere erraz jarraitzeko.
  - Beharrezkoa dela ikusten dugunean, **esaldi laburrak eta sinpleak** erabiltzen ditugu.
  - **Hizkuntza-errutinak** ere erabiltzen ditugu hiztegia barneratzeko eta ulermena errazteko, eta prozesu horretan gu gara erreferente nagusiak.

#### Hizkuntza errutinak

Eguneroko jarduera antolatuetan erabiltzen ditugun esaldi, kanta, esaerak...dira. Errepikatzen diren esaldi horien bidez, euskara hainbat momentutan erabiltzea ziurtatu dezakegu. Estrategia interesgarria da euskara ez dakiten edo oso gutxi dakitenekin erabiltzeko.

- » Gainera, gurekin **euskaraz egin dezaten laguntzen** diegu:
  - Beraiek esandakoa guk euskaraz **errepikatzen** dugu.
  - **Eredua ematen** diegu eta euskaraz errepikatzen gonbidatzen ditugu.
  - **Errefortzu positiboak** ematen dizkiegu: zoriondu eta animatu egiten ditugu ahalegina edota bilakaera sumatzen ditugunean.
  - **Galdera erduekin jolasten** dugu guri euskaraz egitea erraza izan dadin guztientzat:

<b>GALDERA ITXIA</b>	<i>Bai edo Ez erantzutekoak</i>	<i>- Partxisean jolastu nahi duzu? - Bai/Ez.</i>
<b>GALDERA ITXIA</b>	Hitz bat errepikatuz erantzutekoak	<i>- Zer nahi duzu? Gorria edo berdea? - Gorria-Berdea</i>
<b>AUKERAK EMANAZ</b>	Esaldi bat osatuz erantzutekoak	<i>- Partxisean jolastu nahi duzu edo antzerki bat egin nahi duzu? - Partxisean jolastu nahi dut</i>
<b>GALDERA IREKIA</b>	Eredurik ematen ez diegunean, eta esaldia beraiek sortu behar dutenean	<i>- Zertan jolastu nahi duzu? - ...</i>



### Nola erabili galdera ereduak Hezitzaile berritsuak garenean?

Euskaraz hitz egiteko gaitasun gutxi dutenen kasuan edota deseroso sentitzen direnen kasuan

**Euskaraz erantzuten lagundu:** abiatu galdera itxietatik. Erantzunak lortzen ditugun neurrian, sartu galdera itxiak erantzun luzeekin; bai eta galdera irekiak ere. Galderak errepikatu.

Euskaraz aritzeko erraztasunik ez duten baina ahalegina egiten dutenen kasuan

**Euskaraz eroso hitz egin dezaten lagundu:** adi ibili, eta guk egindako galdera irekia erantzutea kostatzen bazaie, galdera itxi moduan birformulatu eta erantzutea erraztu.



**Gogoratu:**

- *Harrera egitean errutina linguistikoak erabili*
- *Hiztegi erraza erabili*
- *Errutina linguistikoak landu, errepikapenak*
- *Eredu izan*
- *Beti euskaraz egin (gaztelaniaz egiten badute, euskaraz erantzun)*
- *Esaldiak sinplifikatu*
- *Errefortzu positiboak erabili*



## 3.2 Hezitzailea erdigunean

Hezitzailea erdigunean: beraien artean ere euskaraz egiten laguntzera begirako estrategia. Hezitzailea elkarrizketaren erdigunean kokatzen da, eta elkarrekin euskaraz egin dezaten laguntzen die: ereduak eman, errepikatze-ko eskatu eta abar. Hainbat haurren kasuan behar beharrezkoa da: batzuen kasuan elkarrekin euskaraz aritzeko gaitasun nahiko mugatua dutelako eta beste batzuen kasuan elkarren artean erdaraz egiteko ohitura dutelako.


Beraz, noiz kokatu gaitzke erdigunean? Batak besteari galdera bat egitea eskatzeko aukera dugunean:

<b>EGOERA BIDERATUETAN</b>	<p>Jarduera bat dinamizatzen ari garenean aukera asko ditugu erdigunean kokatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>» Tailer batean: <i>Paperezko hegazkin bat egingo dugu. Ainhoa, zuk azalduko duzu nola egiten den? Besteok entzun, hegazkina egiten saiatu eta zalantzak badi-tuzue galderak egin.</i></li><li>» Mahai jolas batean: <i>Orain noren txanda da? Nori gal-detuko diozu? Zer galdetuko diozu? Ea ba.</i></li><li>» ...</li></ul> <p>Jarduera hauetan hizkuntza-errutinak txertatzeak asko errazten du elkarrekin euskaraz egitea.</p> <ul style="list-style-type: none"><li>» Galdera-erantzunak daudenean, beti egitura bera-ekin hastea:<ul style="list-style-type: none"><li>— <i>Galderaren bat? Bai, nik galdera bat daukat. Gal-detu! Baina beti, galdera egin aurretik, hizkuntza-errutina erabili behar da.</i></li><li>— <i>Nor da Nor jolasa. Jon, ez dakit nor naizen, la-gunduko didazu? Bai, lagunduko dizut. Bibotea daukat? Ez, ez daukazu biboterik.</i></li></ul></li></ul>
----------------------------	--

<b>EGOERA INFORMALETAN</b>	<p>Egoera informaletan ere izango ditugu aukerak erdigu- nean kokatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>» <i>Maialen, zuk ere zapi zapi jolastu nahi duzu? Gal-detuko diegu ea jolasterik baduzun? Nola galdetuko diezu? Ea ba.</i></li><li>» <i>Arratsaldeon, Aitor. Begira, Mirenekin hizketan ari nintzen. Ezetz asmatu non ibili zen asteburuan. Gal-detuko diozu?</i></li><li>» ...</li></ul>
----------------------------	---



Ludotekako jardueretan zehar hainbat aukera ditugu erdigunean kokatzeko. Jardueraren atalekin lotutako proposamenetan hainbat adibide aurkituko dituzu: Bingoa, Zein da hori, asmakizunak, ipuinak, abestiak...



### 3.3 Egoera babestuak sortu

Haurren artean euskaraz egitea errazten duten egoerak dira eta hiru ezaugarri dituzte:

- » Beraien artean arauak dituzten jolasetan ari dira.
- » Hezitzailea elkarrizketan sartzea nahiko erraza izan daiteke.
- » Euskaraz aritzea errazteko hizkuntza-errutina batzuk ditu arauetan jolasak.

Hauxe da gu erdigunean egotetik egoera babestuetara igarotzeko prozesua (eraginkorrak izan daitezten aurretik lanketa bat egitea beharrezkoa da):

1. Zenbait jolas modu nahiko formalean landuko ditugu, horietan hizkuntza-errutinak txertatuko ditugu, eta euskaraz aritzeko behar dituzten baliabideak ere landuko ditugu.
2. Jolasa ondo ikasi dutenean eta hizkuntza-errutinak ere barneratuta dituztenean, beraien kabuz jolastu ahal izateko aukera emango diegu.
3. Hortik aurrera hezitzaile berritsuak izango gara: adi ibili, elkarrizketetan sartu, eragin eta errefortzu positiboak eman.

#### **BIKOTE-BIKOTE EDO MEMORIA JOLASA**

Bikote-Bikote jolas berria aurkeztuko diegu.  
Adibidez: animaliak eta zer jaten duten.

Egun batean, saioaren hasieran, jolas hori erakustea nahi ote duten galdetuko diegu.

Binaka jolasten dela azalduko diegu, baina txartelak hartzerakoan beti modu berean jokatu behar dela.

1. Lehen txartela hartzean zein animalia den ozen esan behar da: *Untxia da eta...*
2. Bigarren txartela hartzean zer jaten duen esan behar da, baiezkoa edo ezezkoa izan daiteke: ... *eta azenariora jaten du* (bi txartelak berarentzat) edo ... *ez du zizarerik jaten* (txartelak berriro mahaiari jartzen ditu).
3. Baldintza: ez badira gauzak ozen esaten, ezin dira hartu.

Gu erdigunean kokatuta, behin baino gehiagotan egingo dugu jolasa: batzuetan talde handian, batzuetan taldetxo edo bikoteei proposatuz. Denbora baten ondoren, mahai jolasen txokoa utziko dugu, nahi dutenean modu autonomoan erabil dezaten.



## 3.4 Girotzea eta sentsibilizazioa

**Girotze lana:** euskararen presentzia eta parte hartzaileek euskararekin duten harremana indartzeko baliabidea. Estrategia osagarria, baina oso lagungarria. Girotze lanari begira, hona hemen ideia batzuk:

<b>MUSIKA JARTZEA</b>	Une eta egoera ezberdinetan euskarazko musika jartzea. Saiatu adin tarte bakoitzarentzat egokia den musika mota jartzen.
<b>ABESTEA</b>	Abestiak lantzea eta parte hartzaileekin kantatzea. Oso baliabide interesgarria euskara bera lantzeko, eta girotze lanean kokatzen den arren, euskararen erabilerarekin lotura zuzena ere badu.
<b>HIZKUNTZA-PAISAIA</b>	Ludotekako guneak, jostailuak, materialak eta abar txarteletan idaztea eta espazioan zehar jartzea: mozo-roak, margoak...

**Sentsibilizazioa:** euskararekin harremana indartzeari begirako lanketa. Hori ere estrategia osagarria. Sentsibilizazioari begira, hona hainbat ideia:

<b>EUSKARALDIA, KORRIKA...</b>	Euskararen aldeko ekimenak hurbiltzen direnean parte hartzera animatzea, espazioan horren inguruko lelo eta kartelak jartzea eta abar
<b>EUSKAL KULTURA, EUSKARAZKO ERREFERENTEAK</b>	Euskarazko musika jartzen dugunean taldeei buruz hitz egitea, euskarazko ekitaldien berri ematea (antzerkia, zinema, pailazoak...), eta parte hartzera gonbidatzea, eta abar
<b>ELKARTEEKIN HARREMANA</b>	Herrikoak/auzokoak diren elkarteekin harremanetan jartzea, eta harreman hori euskaraz izango dela bermatzea. Elkarlanean ekintzak antolatzea....



## Jardueraren egoera nagusienekin lotutako adibideak eta proposamenak

### 4.1 Mahai jolasak



Mahai jolasak tresna aproposa dira euskararen erabilera indartzeko. Oinarrizko estrategia batekin oso lotuta daude: erdigunetik egoera babestuetara. Zaindu prozedura, eta lorpenak ikusiko dituzu.

Mahai-jolasaren izena	Azalpen laburra	Hizkuntza-errutina
<b>NOR DA NOR?</b>	Adjektiboak ikasteko, galderak egiteko, eta deskribapena lantzeko aproposa. Aurreko parte hartzaileak zein pertsonaia duen asmatzea da helburu nagusia, galdera-erantzunen bidez.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Zure pertsonaiak begi urdinak ditu?</i></li> <li>- <i>Ez, ez dauzka begi urdinak/ Bai, begi urdinak dauzka.</i></li> </ul>
<b>MEMORY-a (bikoteen jolasa)</b>	Buruz behera dauden fitxen artean, berdinak diren bikoteak topatzea da helburua. Hizkuntza lantzeko aproposa da. Izan ere, behin bikotea topatuta, bikote horren inguruan hitz egiteko aukera ematen du (hezitzaile berritsua izateko ere bai).	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartzaileek: <i>ezetz bikotea topatu!</i></li> <li>- Jokalaria: <i>Bai, topatuko dut!</i></li> <li>A) <i>Hau tximeleta da. Eta hau matxinsaltoa da. Ez dira berdinak. Beste baten txanda!</i></li> <li>B) <i>Hau tximeleta da. Eta hau tximeleta da. Berdinak dira! Asmatu dut!</i></li> </ul>
<b>ANTZARA JOKOA</b>	Joko honetan laukitxo batetik bestera aurrera egin behar da, amaierara heldu arte. Bidean oztopoak daude eta horietan errutina linguistikoak erabiltzen dira.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>Antzara batetik bestera, ni, badaezpada ere, aurrera!</i></li> <li>- <i>Zubiri-zubiri, berriz ere niri!, zubirik zubi noa, eta urak arin naroa!, zubitik zubira, zu, zaude oraindik begira!</i></li> </ul>

## Programazioarekin lotzeko adibidea:

Astero, gutxienez eskulanak egiten ditugun saioetako batean, ekintza komunikatibo bat ere proposatuko diegu. Aurretik erabakita izango dugu noiz eta nola egingo dugun.

## Kontuan izatekoak:

- » Errazagoa da ezagutzen ez dituzten jolasekin egitea.
- » Partaideen adina kontuan izatea





## 4.2 Tailerrak



Tailerretan euskararen erabilera zaindu dezakegu hezitzaile berritsu moduan jokatzuz, eta beraien artean euskaraz egiteko egoera babestuek sortu ditzakegu ekintza komunikatiboak proposatuz. Sortu horrelako egoerak eta erabiltzen lagundu ahal izango diezue.

Ekintza komunikatibo adibidea	Azalpena
<b>EGINDAKOA BESTEEI AURKEZTEA</b>	<p>Eskulanan bat egiten ari direnean hezitzaile berritsu moduan ibiliko naiz laguntzen eta elkarrizketetan eragiten.</p> <p>Partaideetako bati edo biri eskulana amaitzean besteei aurkezteko eskatuko diet:</p> <p>» <i>Oso ondo dago egiten ari zarena. Oso polita geratuko da. Nola egin duzu? Oso ondo legoke gero denei erakustea eta nola egin duzun kontatzea, animatuko zara? Nik lagunduko dizut.</i></p> <p>Aurkezpena egiten duenean, laguntza behar badu eman, eta besteekin elkarrizketak izan ditzan bideratu: galderak, iritziak, ekarpenak...</p>
<b>JARRAIBIDEAK EMATEA</b>	<p>Saioetan zehar partaideek zein nolako eskulanak egiten dakiten galdetuko dugu modu informalean. Aukerak daudela ikusten dugunean, batek edo gutxi batzuk dakitena besteei azaldu eta hauei ere eskulan hori egitea proposatuko diegu.</p> <p>» <i>Badakizu papiroflexia egiten? Eta nolako gauzak egiten dituzu? Ze ondo! Nik ikasi nahiko nuke eta ziur besteek ere ikasi nahi dutela. Azalduko diezu?</i></p> <p>Jarraibideak ematen lagundu eta elkarrizketak sor daitezzen erraztu.</p>
<b>EGINDAKOA OPARITZEA ETA AZALPENAK EMATEA</b>	<p>Aste batean egingo dituzten eskulanak elkarri oparitzea proposatuko diegu, adibidez. Eskulanak egin ondoren, saio batean borobilean eseriko gara. Banan-banan zer egin duten eta nori oparitzen dioten azalduko dute. Hartu-eman horretan elkarrizketak izan ditzaten bideratuko dugu:</p> <p>» <i>Iker, zuk zer egin duzu? Nola egin duzu? Oso polita da, baietz? Miren, zer iruditzen zaizu? Iker, nori oparituko diozu? Oso ondo! ...</i></p> <p>Guztiek oparia jasoko dutela zainduko dugu.</p>





### **Programazioarekin lotzeko adibidea:**

Astero, gutxienez eskulanak egiten ditugun saioetako batean, ekintza komunikatibo bat ere proposatuko diegu. Aurretik erabakita izango dugu noiz eta nola egingo dugun.

### **Kontuan izatekoak:**

- » Partaideen adina: dinamika hauek zailagoak dira txikiekin (4 edo 5 urtekoekin). Baina kasu horietan ere egin daitezke. Adibidez: eskulana beraiekin batera egin eta beraiekin batera azaldu.
- » Partaideen hizkuntza-gaitasuna: euskaraz aritzeko gaitasun urria duten partaideen kasuan ere oso interesgarria da modu honetako dinamiketan inplikatzeari. Baina eroso sentitu daitezela lagundu behar diegu. Horretarako, aurretik entrenatu ditzakegu esan beharrekoak, eta azalpena eman edo elkarriketa egiten ari direnean ereduak emanaz edo galdera ereduarekin jokatzeko lagundu ahal izango diegu.



## 4.3 Jolas sinbolikoa



Jolas sinbolikoa nahiko jarduera librea izaten da, baina mahai jolasen moduan estrategia egoki batekin ere lotu dezakegu: Erdigunetik egoera ba-bestuetara. Hori lantzeaz gain, hezitzaile berritsu moduan aritzen bagara, ziur lorpenak ikusiko ditugula.

Jolas sinbolikoaren izena	Azalpen laburra	Hizkuntza-errutina
<b>DENDA JOLASA</b>	<p>Haur batzuk dendariak izango dira eta beste batzuk erosleak.</p> <p>Dendari bakoitzak kaxa batean produktu batzuk izango diru: fruta, jogurta, ogia...</p> <p>Erosleek erosketa zerrenda bana izango dute irudiz lagunduta.</p> <p>Dendaz denda doaz produktuei buruz galdezka eta erosketak egiten.</p> <p>Haurren adinaren arabera dirua ere sar daiteke tartean, eta prezioekin ere jokatu daiteke.</p>	<p>Dendaria I: <i>Kaixo!</i>  Eroslea: <i>Kaixo!</i>  D: <i>Zer nahi duzu?</i>  E: <i>Laranjak nahi ditut</i>  D: <i>Zenbat nahi dituzu?</i>  E: <i>Bost nahi ditut</i>  D: <i>Tori, hartu</i>  E: <i>Mila esker!</i>  Dendaria II: <i>Kaixo!</i>  Eroslea: <i>Kaixo!</i>  D: <i>Zer nahi duzu?</i>  E: <i>Jogurtak nahi ditut</i>  D: <i>Ez daukat jogurtik</i>  E: <i>Ba orduan ezer ez</i>  D: <i>Agur!</i>  E: <i>Agur!</i></p>



## MOZORRO JOLASA

Borobil batean eseri eta erdian kaxa batean hainbat mozorro sartuko ditugu.  
Haur bat altxatuko da eta borobilari nahiko lasai bi buelta emango dizkio (nahi badu keinu edo dantzaren bat eginaz).  
Ondoren erdigunera joan, mozorro bat aukeratu eta jantzi egingo du.  
Guztiak mozorrotu arte errepikatuko dugu.

Borobilean eserita daudenean txaloka hasi eta guztiek batera:

- *Plast! Plast! Badator, badator. Plast! Badator, badator.*

Altxatu dena erdigunera iristen denean eta mozorroa jantzi duenean:

- Haurra: *Nor dator?*
- Taldea: *Sorgina dator!*
- Haurra: *Nola dakizue?*
- Taldea: *Kapela jantzi duzulako!*
- Haurra: *eta zer egiten du sorginak* (keinua bat egin behar du)?
- Taldea: *Hau egiten du!* (keinua bera egin).

## ETXE JOLASA

Uztai handi bat etxea izango da eta bat barruan sartuko da.  
Besteak, banan bana hurbildu egin behar dute eta etxean sartzea eskatu.  
Ahalik eta jende gehien etxean sartzea lortu behar dute.

Haurra I: *Kaixo!*  
Etxekoa: *Kaixo!*  
Haurra I: *Utziko didazu sartzen?*  
Etxekoa: *Zergatik utzi behar dizut sartzen?*  
Haurra I: *Kanpoan hotza egiten duelako*  
Etxekoa: *Ados. Sartu, sartu!*  
Haurra II: *Kaixo!*  
Etxekoak: *Kaixo!*  
Haurra II: *Utziko didazue sartzen?*  
Etxekoak: *Zergatik utzi behar dizugu sartzen?*  
Haurra II: *Gosea daukadalako*  
Etxekoak: *Ados. Sartu, sartu!*  
...

### **Programazioarekin lotzeko adibidea:**

Hilabetean behin jolas sinboliko bat proposatuko diegu. Talde osoarekin edo talde nahiko handi batekin aritzen garen tarte bat aukeratuko dugu horretarako, eta jolas bat proposatu nahi diegula esango diegu.

Jolasa ondo azaldu behar da eta modu erakargarrian proposatu. Gustatzen bazaie, behar bada bi-hiru astetan zehar saio batean errepikatuko dugu. Behin jolasa ondo ikasita dutenean, txoko edo ludotekako gune batean utziko dugu, eta nahi dutenean beraien kabuz jolasteko aukera izango dute.

Garrantzitsua da hezitzailea erdigunean kokatzea lehen saioetan eta jolasa ondo erakustea; eta hizkuntza-errutinaren bat baldin badu, hori ondo barneratzea. Ondoren, beraien kabuz aritzeko aukera izango dute; eta, beharrezkoa ikusten denean, hezitzaile berritsu moduan jokatzuz eragin daiteke elkarrizketetan.

### **Kontuan izatekoak:**

- » Partaideen adina: adin tarte guztietan erabil daiteke jolas sinbolikoa, baina jarduera eta ezaugarriak egokitu behar dira adinera.
- » Partaideen hizkuntza-gaitasuna: euskaraz aritzeko gaitasun urria dutenentzat ere oso aproposak izan daitezke jolas hauek. Jolas arautuak dira, eta hainbatetan hiztegi eta hizkuntza-errutina jakin batzuk erabili behar dira. Horiek hezitzailea erdigunean kokatzen denean landuko direnez, asko errazten zaie hurrei euskaraz egin ahal izatea eta eroso eta natural aritzea.



## 4.4 Jolas librea eta egoera informalak

Jolas librean oinarrizko estrategia zaintzea izan daiteke euskara erabiltzen laguntzeko modua, hau da, hezitzaile berritsu aktiboak izatea. Gure eragina mugatua izango da; baina, horretan ahalegintzen bagara, parte hartzaileetako askok inoiz baino euskara gehiago erabiltzea ere lortu dezakegu. Merezi du.

### Programazioarekin lotzeko adibidea:

Egoera aukeratzea	Intentsitate bat zehaztea
<b>HARRERA ETA AGURRA</b>	Saioaren hasieran eta amaieran, oraindik dinamikak egiten hasi aurretik edota jasotzen ari garenean, banakoekin elkarriketak sortuko ditugu. Egunero, gutxienez 4 elkarrizketa sortzen saiatuko naiz.
<b>JOLAS LIBREA</b>	Jolas librean ari direnean, ni batzuekin eta besteekin hizketan ibiliko naiz: zertan ari diren galdetuz, jolasetan sartuz, proposamen berriak eginez eta abar. Egoera horietan, saio bakoitzean gutxienez 6 elkarrizketa sortzen saiatuko naiz.
Elkarrizketa horiek sortzen ditugunean prozedura modu oso kontzientean eta aktiboan erabiliko dugu: <ul style="list-style-type: none"><li>» Guk euskaraz egin.</li><li>» Erdaraz erantzuten badigute, berriz galdetu edo galdera ereduakin jokatu.</li><li>» Aukera egokia ikusten badugu, ahalegina ere eskatu.</li><li>» Errefortzu positiboak eman.</li></ul>	

### Kontuan izatekoak:

- » Egoera informalen zerrenda egitea: zein dira saioetan zehar izaten ditugun tarte informal edo ez bideratuak? Horiek zerrendatu ditza-kegu eta gutxienez bat edo bi aukeratu.
- » Intentsitatearen garrantzia: saioetan zehar hezitzaile berritsuak izango gara, baina egoera hauetan intentsitate bat eta jokatzeko modua oso argi izango ditugu. Hori da klabea. Hau da: sortu al ditut 4 elkarrizketa horiek? Horietan erabili al ditut galdera ereduak? Eman al dizkiet errefortzu positiboak?



# ZABALGANAKO LUDOKLUBA







## Hizkuntza-aniztasunari begirako proposamenak

Kultur aniztasun handia dagoen gizarte batean bizi gara, eta ludoteken helburuetako bat aniztasun hori bistaratzea eta partaideei gerturatzea ere bada. Ludotekaren jardunean eta programazioan hori ere txertatu daiteke.

### **HEZITZAILEEN JARRERAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK**

» Harrera hizkuntza ezberdinetan

### **PROGRAMAZIOAN TXERTATU DAITEZKEEN JARDUERA PROPOSAMENAK**

- » Karaokea
- » Ipuinak
- » Hizkuntza-jolasak
- » Tailerrak

### **GIROTZEAREKIN EDO HIZKUNTZA-PAISAIAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK**

- » Hizkuntzen mapa
- » Jolasen izenak



**UDALAREN LUDOTEKA ETA LUDOKLUB SAREA**  
**RED MUNICIPAL DE LUDOTECAS Y LUDOC CLUBS**



# Gurasoek parte hartzen duten egoerei begirako irizpideak eta ideiak

Ludoteketan haurrek parte hartzen dute, baina haurren gurasoekin ere harremana izaten da. Beraz, euskararen presentzia eta erabilerara indartu nahi badira, familiekin harreman horretan zer eta nola egin daitekeen zehaztea komeni da.

## Harreman hori bi modutakoa izaten da:

- » **Harrera eta agurra:** haurrekin datozenean eta jarduera hasi aurretik edo amaitu ondoren izaten diren elkarrizketak.
- » **Jardueran bertan parte hartzea:** hainbat ludotekatan ohikoa da gurasoek ere espazioa erabiltzea eta jardueretan parte hartzea. Kontuan izan behar da:
  - Ume txikien gurasoek parte hartzen dute nagusiki.
  - Gurasoek parte hartze aktiboa dutenean, hezitzailearen rola pasiboagoa izaten da.



— Hortik abiatuz, hauek dira kontuan har daitezkeen proposamenak:

**FAMILIEKIN  
AURREZ AURREKO  
HARREMANARI  
BEGIRAKO  
IRIZPIDEAK**

Familiekin dugun harremanean euskarak leku handia izateari begira, honakoa izan daiteke abiapuntuko ideia:

- » Lehenengo harremanean (oraindik ezagutzen ez ditugunean) euskaraz egin. Ez badute ulertzen, esango digute. Modu honetan euskaraz izan daitezkeen harremanak euskaraz sortuko direla bermatuko dugu.
- » Horrela jokatzea zaila egiten bazaigu, lehenengo harreman horretan galdetu euskaraz ba ote dakiten edo ulertzen ote duten.

Familiekin harreman hizkuntza zehaztu ondoren, honakoa hartu dezakegu kontuan:

- » Euskaraz dakiten gurasoekin beti euskaraz egin, baita euskara ez dakitenak aurrean daudenean ere. Talde elkarrizketa batean ezingo dugu hori egin, baina bai beraiekin denean elkarrizketa.
- » Euskara ondo ez dakiten gurasoekin euskaraz egin. Zerbait ondo ulertzen ez badute hori adierazteko eskatu, eta kasu horietan euskaraz beste modu batera egin (esaldi laburrak eta argiak, mimitikaren laguntzarekin eta abar) edo erdaraz esan.
- » Euskaraz ez dakiten gurasoekin agurrak euskaraz erabili, baina ulertzeko errazak izan daitezkeen hitz edo esaldi laburrak ere. Adibidez: zenbakiak (1,2,3...), egunerokotasuneko galderak (*zer moduz?*, *Ondo?..*), eta abar.



**FAMILIEK PARTE  
HARTZEN  
DUTEN ETA  
DINAMIZATUAK  
DIREN JARDUEREI  
BEGIRAKO  
PROPOSAMENAK**

Hezitzaileek kontuan izatekoak:

- » Haurrei beti euskaraz egin, bai eta euskaraz ez dakiten gurasoak aurrean daudenean ere. Haurrei komeni zaie hezitzailea euskararekin identifikatzea.
- » Hizkuntza-errutinak euskaraz erabili. Jarduera dinamizatueta hizkuntza-errutinak erabiltzea ohikoa da, eta horiek euskaraz ere ulertu ditzakete gurasoek. Aukera egoki bat honakoa izan daiteke: hizkuntza-errutinak hasieran ele bietan erabiltzea, eta hainbat aldiz erabili ondoren euskara hutsean erabiltzen hastea.

Gurasoei begirako proposamenak:

- » Euskaraz ez dakiten gurasoei jardueretan erabiltzen ari garen hizkuntza-errutinak euskaraz erabiltzeko eskatu.
- » Euskaraz pixka bat dakitenei ahal duten euskara guztia erabiltzeko eskatu, eta eroso erabil dezaten lagundu. Hau da: ez eman garrantzirik zuzentasunari, eta adierazteko zailtasunak ditzutenean ereduak emanez lagundu.
- » Euskaraz dakitenei eskatu beste haurrei euskaraz egiteko. Seme-alabekin eta hezitzaileekin euskaraz egiteaz gain, beste hurrekin ere euskaraz egitea proposatu. Hainbatek horrela egingo dute; baina batzuek, gurasoek ez dakitela ikusita, erdaraz egiteko hautua egin dezakete.

Kontuan izan: gurasoek euskararekiko jarrera aktiboa erakustea lagungarria da hezitzaileontzat eta onuragarria seme-alabentzat. Gaiari buruz hitz egin daiteke gurasoekin:

- » Modu formalean: izena ematera datozenean ludotekaren helburuei buruz eta hizkuntza erabilerari buruz hitz egitea; eta adibidez, esku-orri batean edo mezu batzuk ematea.
- » Modu informalean: jardueran bertan helburuei begirako aipamenak egitea eta proposamen zehatzak egitea.



### **Gogoratu:**

#### **Familiekin aurrez aurreko harremanari begirako irizpideak**

- » Lehenengo hitza euskaraz. Gero, beharrezkoa bada, hizkuntza aldatu.
- » Euskara gutxi edo oso gutxi dakitela baldin badakigu. ERRUTINAK erabili: harrerak beti berdin egin, adibidez: Kaixo, egun on, asteburu ona izan... Modu naturalean erabiltzen dituztenean, errutina berriak sartu.

#### **Familiak parte hartzen duten eta dinamizatuak diren jarduerari begirako proposamenak**

- » Baliabideak eman, hiztegia baliatu (gelan materialaren izena idatziz adibidez)
- » Jolasetan errutinak txertatu (errepikapenak).
- » Hizkuntza paisaia zaindu
- » Laguntza eskaini

HAIR TIKKA  
0-3  
KIDIN INFANTIL



# AISIALDIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN

LUDOTEKAK | JOLAS TXOKOAK



HEZITZAILEENTZAKO GIDA PRAKTIKOA

GOZATU EUSKARA!

EGILEAK:



AHOLKULARITZAK:

**EUSKARABA**

ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

**ebete**

Informazio gehiagorako:

<https://euskaraba.eus/>



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

[www.araba.eus](http://www.araba.eus)